

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN HONDAKINEN INBENTARIOA (LABURPENA) 2016

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:

<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

**Edizioa:** 2018ko apirila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila  
[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Argitaraldia:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia/San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

**Edukia:** dokumentu hau L&A Asociados enpresak egin du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailerako

## **SARRERA**

Azpiegituren eta eraikinen eraikuntzak, birgaikuntzak eta eraispenak, baita etxebizitzetan eta lokaletan egindako berriztatze lan txikiek ere, hondakinak sortzen dituzte. Hondakin hauei Eraikuntza eta Eraispen Hondakinak (EEH) deritzo.

112/2012 Dekretuaren arabera, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinaren ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena, hondakin hauek kudeatu behar dira baimendutako tratamendu azpiegiturretan. Ahal izanez gero, hondakinak birziklapen operazioetara bidali behar dira.


Euskal Autonomiaren Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2020 EEH-ak lehentasunezko hondakin korrentetzat dauzka, eta hurrengo helburuak ezartzen ditu (2010-eko urtea oinarri hartuz):

- EEHen sorreraren % 5koa murrizketa 2016rako, eta % 10koa 2020rako.
- EEHen % 60 birziklatzea 2016rako, eta % 70, 2020rako.

Txosten honen bidez, 2016an lortutako emaitzen ikuzkizun sintetikoa eskaintzen da.

### **1 EEH-EN SORTZEA**

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), 2016 urtean zehar, 1.261.661,46 EEH tona sortu ziren. Sortze honen banakapena, jatorrizko obra motaren arabera, honako hau izan zen:



Hurrengo taula EEHen sortzearen xehetasunak adierazten ditu:

Jarduera / Obra mota	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
<b>I. LIZENTZIA BEHAR DUTEN OBRAK</b>				
A. Bizitegi-erabilerarik eza	71.100,91	63.564,22	51.629,00	186.294,13
B. Bizitegi erabilera	113.841,82	278.782,58	257.744,60	650.369,00
C. Soilik erabateko eraispéna	3.495,62	5.295,83	3.161,70	11.953,15
GUZTIRA	188.438,34	347.642,63	312.535,30	848.616,27
<b>II. OBRA ZIBILA</b>				
A. Garraioa	17.208,95	53.893,71	28.617,73	99.720,39
B. Urbanizazioa	26.384,88	83.558,32	92.674,90	202.618,10
C. Hidraulikoa	2.350,26	4.287,03	1.668,24	8.305,54
D. Ingurumena	282,89	4.570,15	2.448,47	7.301,50
GUZTIRA	46.226,99	146.309,21	125.409,33	317.945,53
<b>III. OBRA TXIKIAK</b>				
Obra txikiak	3.758,43	76.778,00	14.563,22	95.099,65
GUZTIRA	3.758,43	76.778,00	14.563,22	95.099,65
<b>GUZTIRA</b>	<b>238.423,76</b>	<b>570.729,84</b>	<b>452.507,85</b>	<b>1.261.661,46</b>

Kantitate hauek 2015ean erregistratutakoak baino handiagoak dira. Honen zergatiak honako biak izango litzateke: alde batetik, eraikuntzaren jardueraren hobekuntza, eta bestetik, berregokipen lanen igotzea, bereziki, zatizko eraispéna dakartenak.

Joera aldaketa honek, 2016rako hondakinen sortzea %5a murrizteko aurreikuzitako helburua betetzea galerazi egin du, eta 2020koa ere zailtzen du (%10eko murriztea).

**2 EEH-EN KUDEAKETA**


EEHen helburu edo azken tratamendua hurrengoa izan da:

EAEan EEHen azken tratamendua (2016)		
Gestión	Kopurua (t)	%
Birziklapena	<b>778.116,48</b>	<b>%47,64</b>
<i>Instalazio finkoak</i>	531.238,46	%42,11
<i>Instalazio mugikorrak</i>	126.166,15	%10,00
<i>Bestelako instalazioak</i>	120.711,88	%9,57
Deuseztapena	<b>155.375,07</b>	<b>%12,32</b>
<i>Zaborteziak</i>	116.116,75	%9,20
<i>Hondakin arriskutsuak</i>	4.123,37	%0,33
<i>Bestelako instalazioak</i>	35.134,95	%2,78
Kudeaketa ezezaguna	<b>328.169,91</b>	<b>%26,01</b>
<b>Guztira</b>	<b>1.261.661,46</b>	<b>%100</b>

2015 urtearekin konparatuz, 2016ko emaitzetatik bi datu positiboak ondorioztatzen dira:

- Birziklapen-tasa goraketa, %59,4tik %61,67ra.
- Zaborteziatan deuseztapena jaustea, %18,61etik %12,32ra.

2009 urtetik, EEHen kudeaketaren joeraren hobetzea funtzeskoa izan da, birziklapenaren garrantzia handituz, eta deuseztapen eta kudeaketa desezagunaren ehunekoak murriztuz.



2016 urtean eskuratu da 2020rako Hondakinak Prebenitzeko Planaren %60eko birziklapena lortzeko helburua betetzea. Joera mantenduko balitz, 2020an

birziklapenaren ehunekoa 70ekoa baino handiagoa izango litzateke, Europar Batasunak eskatzen duen emaitza gaindituz.